



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

2021eko irailaren 21ean, goizeko 11:30ean, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordeak:

Jon Iraola  
Ana Tellería  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
María Isabel Fernández

Honako akordio hauek hartu zituen:

### **1.- Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa Afganistango egoerari buruz.**

Proposamena egin duen udal taldeak jakinarazi du testu hau Adierazpen gisa tratatzea nahi duela, eta gainerako udal-taldeek onartu egiten dute planteamendu hori; beraz, Adierazpen gisa aztertuko da.

Bestalde, Eibarko PSE-EE eta Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeek jakinarazi dute testu bana dutela, eta gainerako taldeen artean partekatuko dituztela, edukiari buruzko akordioa lortzeko.

Gai-zerrendako puntuez gain, Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldearen ordezkariak jakinarazi du adierazpen proposamen bat duela, Pertsonen salerosketaren aurkako Nazioarteko Egunerako, eta hau ere gainontzeko taldeekin partekatuko duela akordio batera iristeko.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada el 21 de septiembre de 2021 a las 11:30 horas y con la presencia de:

Jon Iraola  
Ana Tellería  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
María Isabel Fernández

Adoptó los siguientes acuerdos:

### **1.- Moción presentada por Eibarko EAJ-PNV, relativa a la situación de Afganistán.**

El grupo proponente informa de que desea que este texto sea tratado como Declaración, y el resto de grupos municipales aceptan este planteamiento, por lo que se abordará como Declaración.

Por su parte, el PSE-EE de Eibar y Elkarrekin-Podemos Eibar dan cuenta de que disponen de sendos textos que van a compartir entre el resto de los grupos a fin de llegar a un acuerdo sobre el contenido.

Fuera de los puntos del orden día, la representante del grupo municipal Elkarrekin-Podemos Eibar ha informado de que dispone de una propuesta de declaración para el Día contra la trata de personas, que también va a compartir con el resto de grupos para llegar a un acuerdo.



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

Bestalde, alkateak azaldu du urriko Ohiko Osoko Bilkuran erabaki beharko dela noiz egingo den azaroko bilkura, jaiegun bezperan egitea tokatzen baita. Horren aurrean, Eibarko EAJ-PNV udal taldeko ordezkariak adierazi du, Udalbatzaren akordio baten arabera, Bilkura jaiegunaren hurrengo lanegunean egin beharko dela, hau da, abenduaren 1ean.

Gai honetan jarraitu beharreko irizpidea argitze aldera, alkateak Udal Idazkariari galdera bat bideratuko dio, ostean, Udal taldeen artean partekatzeko.

Azkenik, alkateak Txopitea eta Pakea Odei Jainaga kirolari eibartarrari emateko Eibarko EAJ-PNV udal taldearen proposamena aipatu du, eskaera hau jaso dela argi uzteko duela eta Bozeramaileen Batzorde batean aztertuko dela adierazteko, egokia den ala ez erabakitzeko. Eibarko EH-Bildu taldeak proposamenaren alde bozkatuko duela aurreratu du.

Eta goizeko 11:55ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, Alkateak bilerari amaiera eman dio.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

Por otro lado, el alcalde ha expuesto que, debido a que el día en el que corresponde celebrar el Pleno Ordinario Municipal del mes de noviembre es víspera de festivo, se debe consensuar la fecha de celebración en la sesión plenaria ordinaria del mes de octubre. Ante esta afirmación, el representante del grupo Eibarko EAJ-PNV ha asegurado que, en base a un acuerdo adoptado por la Corporación municipal, el Pleno deberá celebrarse en el siguiente día hábil al festivo, esto es, el 1 de diciembre.

A fin de aclarar qué criterio se debe seguir para consensuar la fecha, el alcalde realizará una consulta al Secretario Municipal que, posteriormente, será compartida entre todos los grupos políticos.

Por último, el alcalde ha hecho alusión a la propuesta de Eibarko EAJ-PNV de entregar el Txopitea eta Pakea al deportista eibarrés Odei Jainaga, a fin de dejar constancia de la solicitud y de que se tratará en una Junta de Portavoces para decidir sobre su idoneidad. El grupo EH-Bildu de Eibar ha adelantado que su grupo votará a favor de la propuesta.

Y siendo las 11:55 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión.